

Geografia eta

Historia

Ion LINZOAIN RAMOS

JOERA GEOGRAFIKOEN
ERAGINAREN ANALISIA LEHEN
HEZKUNTZAKO GEOGRAFIAREN
TESTU LIBURUETAN / ANÁLISIS DE
LAS TENDENCIAS GEOGRÁFICAS EN
LOS LIBROS DE TEXTO DE
GEOGRAFÍA DE EDUCACIÓN
PRIMARIA

TFG/GBL 2013

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria /
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Egilea: Ion Linzoain Ramos

Joera geografikoen eraginaren analisisa Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria

Egilea: Ion Linzoain Ramos

*Joera geografikoen eraginaren analisisa Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria*

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**JOERA GEOGRAFIKOEN ERAGINAREN
ANALISIA LEHEN HEZKUNTZAKO
GEOGRAFIAREN TESTU LIBURUETAN /
ANÁLISIS DE LAS TENDENCIAS GEOGRÁFICAS
EN LOS LIBROS DE TEXTO DE GEOGRAFÍA DE
EDUCACIÓN PRIMARIA**

Ion LINZOAIN RAMOS

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Egilea: Ion Linzoain Ramos

*Joera geografikoen eraginaren analisisa Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria*

Ikaslea / Estudiante

Ion LINZOAIN RAMOS

Izenburua / Título

Joera geografikoen eraginaren analisia Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan / Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Esther SAN MARTIN CASI

Saila / Departamento

Geografia eta Historia / Geografía e Historia

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberriko / Primavera

Egilea: Ion Linzoain Ramos

*Joera geografikoen eraginaren analisia Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria*

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakutsi dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Egilea: Ion Linzoain Ramos

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua gure ikerketa prestatzeko oinarria izan da, batez ere Garapen psikologia, Geografia eta Irakaskuntza teoria adierazgarriak zehatzago ikasteko.

Didaktika eta diziplinako moduluak batez ere ikerketaren analisisan, eta egindako aplikapen praktikoetan nabarmendu dira batez ere.

Halaber, Practicum moduluak ikerketa egiteko oinarri izan diren testu liburuak ezagutzeko aukera eman digu, eta gehienbat hasierako plangintzan izan du ekarpena.

Azkenik, alde batetik, esan beharra dago, aukerako moduluek batez ere ikerketako kategoriak zehazteko izan dira nabarmen.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerakoan, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Sarrera/ Introducción”, “Ondorioak/Conclusiones” , “ III .Gehigarria/ Anexo III: Paul Vidal de la Blanche” eta hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Ikerketa honen funtsezko helburua, Inguruaren Ezaguera arloko Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko testu liburuek, Geografiari erlazionaturiko edukiak nola jasotzen dituzten aztertzea da, bertan eragina duten Geografia ikusmolde eta korronte Geografiko ezberdinak zehaztuz. XXI. mendeko lehen hamarkadan Nafarroako Foru Komunitatean presentzia izan duten bi argitaletxeren Euskarazko ekoizpenak ikertu dira, hain zuzen Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko lehen mailari zuzenduta daudenak. Erabili egin den metodologia bi motatakoa izan da, alde batetik kuantitatiboa maiztasunak deskribatzeko eta bestetik kualitatiboa, edukien analisiari zuzendutako kategoria eta dimentsio ordenatu zein multzokatuak egin ahal izateko. Esan beharra dago, ikertutako liburuetan ikusten denez, Natur Zientzia edukiei zuzendutako orrialde kopurua, Geografiari zuzendutakoa baino gehiago dela.

Hitz gakoak: Geografia; Irakaskuntza; Korronte; Ikuspegi; Argitaletxe.

Resumen

El objetivo primordial de esta investigación, es analizar cómo han recogido los libros de texto del conocimiento del medio del tercer ciclo de Primaria aquellos contenidos relacionados con la Geografía, precisando qué tipos de corrientes Geográficas influyen y el enfoque con el que trabajan. Se ha estudiado la producción en lengua vasca de dos editoriales, más en concreto dos libros del primer curso del tercer ciclo de primaria con presencia en el ámbito autonómico navarro en la primera década del siglo XXI. Se ha utilizado una metodología tanto cuantitativa, para la descripción de frecuencias, como cualitativa a fin de establecer un conjunto ordenado de categorías y dimensiones orientadas al análisis de contenidos. Observamos que en los libros analizados, se tiende a dedicar más páginas a los contenidos relacionados con las Ciencias Naturales que a los relacionados con la Geografía.

Palabras clave: Geografía; Enseñanza; Corriente; Enfoque; Editorial.

Egilea: Ion Linzoin Ramos

Abstract

The main aim of this research is to analyze how the third cycle of Primary textbooks collected those contents related to Geography, specifying which Geographical currents and approaches have more influence in them. We have studied the Basque language production of two editorials, more specifically two books from the first year of the third cycle of Primary which have had presence in the first decade of this century in Navarre Autonomous Community. It has been used a quantitative methodology for the description of frequencies and also a qualitative one, with the aim of establishing a common ordered categories and dimensions oriented to analyze the contents. As a result, we can conclude that the textbooks analyzed in this investigation tend to devote more pages to Natural Sciences contents than to contents related to Geography.

Keywords: Geography; Education; Current; Approach; Publisher.

AURKIBIDEA / ÍNDICE

Sarrera / Introducción	
1. Aurrekariak, helburuak eta auziak	1
1.1. Hasierako galderak eta hipotesiak	2
2. Marko teorikoa: Oinarria eta irakaskuntza inplikazioa / Marco Teórico	4
2.1. Garapen eta Ikaskuntzaren Psikologia	4
2.1.1. Definizioa	4
2.1.2. Garapenaren Aroak	5
2.1.2.1 “Tarteko Haurtzaroa”	6
2.1.3 Jean Piaget	11
2.1.4 Irakaskuntza Teoria Adierazgarriak	20
2.1.4.1 Jerome Bruner	20
2.1.4.2 David Ausubel	21
2.2. Geografia	23
2.2.1 Definizioa	23
2.2.2 Korronte Geografikoak	23
2.2.3 Ikuspegi Geografikoak	28
3. Ikerketa / Investigación	29
3.1. Materiala	33
3.2. Metodologia	34
3.3. Emaizen Análisis	37
3.3.1. Aplikapen praktikoa	50
Ondorioak / Conclusiones	
Erreferentziak / Referencias	
Gehigarriak / Anexos	
A. Anexo I Aplikapen praktikoa	
B. Anexo II Aplikapen praktikoa	
C. Anexo III Paul Vidal de la Blanche	

SARRERA / Introducción

En la actualidad, los libros de texto son susceptibles de analizarse y utilizarse desde múltiples puntos de vista, puesto que desempeñan una función académica muy importante. Además, consideramos que dichos materiales pueden intervenir e influir de forma muy significativa no solo en una función meramente académica sino también en la construcción de identidad personal y social del alumnado en cuestión.

Por tanto, podríamos decir que la utilización de los libros de texto en el contexto educativo, otorgará al alumno la posibilidad de comprender la realidad en la que vive y situarse en ella mediante una guía didáctica preparada para ello. Aun así, es destacable decir que, “En teoría, los libros de texto sintetizan y presentan el conocimiento y los valores sociales deseables en un tiempo y en un espacio determinados”(López Atxurra y De La Caba Collado, 2001 ,386). Y que dichos conocimientos están regulados por distintas leyes según el espacio temporal en el que fueron realizados, por lo que no todos los contenidos de la mismas materias trabajadas en los libros de texto estarán estructurados ni presentados de la misma manera.

De esta forma, se quiere dejar claro que, según López Atxurra y De La Caba Collado (2001) el libro de texto está inserto en un contexto social complejo y que es en este escenario real donde verdaderamente se construyen, de tal forma que no es un ente autónomo y aislado, sino que está abierto a múltiples influjos sociales, legales o didácticos.

De esta manera, consideramos que estos materiales tienen son bastante utilizados en los centros escolares, consideración que hemos tenido la oportunidad de confirmar mediante las prácticas recientemente realizadas.

Por todo ello, creemos muy interesante llevar a cabo un estudio sobre diferentes libros de texto en un entorno que nos resulte cercano, y para ello hemos tomado la decisión de analizar dos editoriales, que producen libros destinados especialmente a la Comunidad Foral Navarra.

Más concretamente, nos ha interesado analizar el área de Conocimiento del Medio en lengua vasca, centrándonos en el tercer ciclo de Educación Primaria modelo (D), puesto que consideramos que puede ser un interesante objeto de estudio.

En este caso, conscientes de la amplitud de la materia elegida, y al tiempo aproximado de un mes para realizar este proyecto, hemos decido centrarnos expresamente en aquellos contenidos didácticos dedicados la Geografía, por las capacidades, destrezas valores y actitudes que la Geografía fomenta en los alumnos de Educación Primaria.

De ahí la pregunta genérica, que ha orientado esta investigación con la que se plantea indagar que tipo de enfoques geográficos y corrientes geográficas intervienen más en los libros de texto seleccionados para su análisis.

Egilea: Ion Linzoain Ramos

*Joera geografikoen eraginaren analisisa Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria*

1. AURREKARIAK, HELBURUAK ETA AUZIAK

Lehenengo atal honi hasiera emateko, gure ikerketaren inguruko aurrekariari buruz hitz egiten emango diogu hasiera. Esan beharrean gaude, aztertu dugun gaiaren inguruan ez daudela aurrekari askorik, izan ere testu liburuen inguruan tesi eta ikerketa orokor asko dauden arren, Ingurunearen Ezaguerari zehazki erlazionaturiko lanak ez daude soberan, eta are gutxiago gainera Lehen Hezkuntzan Geografiaren ikuspegitik ikertuta, beraz honen ondorioz dauden ikerketa kopurua asko murriztu egiten da.

Honela, gure ikerketarako erabilgarriak diren material osagarriak aurkitzeko zailtasunak izan diren arren, aipatzekoa da aurkitutako lanek ikerketa gauzatzeko metodologia zehazteko oso baliogarriak izan direla. Batez ere, oso erabilgarria suertatu zaigu (López Atxurra y De La Caba Collado, 2001) non bertan gauzatzen den ikerketaren metodologiako zenbait urrats gure ikerketan ere erabili ditugun; batik bat (Harmon, 2000) ikertutako edukien analisia egiteko eta (Johnsen, 1996) banakako orriz orriko analisiak egiteko.

Hala ere, nahiz eta aurrekariak aurkitzeko zailtasunak izan ditugun arren, esan beharra dago, honek ez duela inoiz lanari ekiteko genuen gogoia murriztu baizik eta erakargarriagoa egin duela. Horrela, gure ikerketa lan hau egitea guztiz justifikatua dagoela esan genezake, gai honen inguruko ikerketa bat egiteak suposatzen al dituen onurak direla eta.

Beraz, aurrekoa kontutan hartuta, azterketa honen funtsezko helburua hauxe izatea erabaki genuen: Inguruaren Ezaguera arloko Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko Ikastetxe askotan erabiltzen ari diren testu liburuak aztertzea, bertan Geografiari erlazionaturiko edukiak nola jasotzen dituzten aztertuz eta horietan eragina duten Geografia ikusmolde eta korrante Geografiko ezberdinak zehaztu.

Laburbilduz, esan dezakegu gure xedea gaur egun eskolan lantzen den Geografia nolako den ikertzea dela. Gainera, zehaztasunez ikertzeko, zein Geografia Ikusmolde

Egilea: Ion Linzoain Ramos

nagusitzen den “Ortodoxo” edo “ Integratu” (Haggett, 1983) aztertzea dugu helburu, baita edukietan eragina duten korrante geografiko ezberdinen hautematea.

Horrela, aipatzekoa da, Inguruaren Ezaguera arloaren inguruko ikerketa hau hautatzeko arrazoi asko izan ditugula, eta esan beharrea gaude arlo hau curriculumeko beste arloekin alderatuta oso arlo aberatsa iruditzen zaigula.

Gainera, bertan lantzen diren edukiak jatorri askotakoak izan daitezke, bai natural, geografiko edo kulturalak eta hauek ikertzea ere oso interesgarria izango litzateke baina tamalez gure ikerketa gauzatzeko denbora oso mugatuta egon da, hilabete bateko epea izan dugularik. Hala ere, nahiz eta gaur egun testu liburuak oso kritikatuak diren, onartu beharrea gaude irakasleek dituzten errekurtsio didaktiko garrantzitsuenetarikoa direla eta nolakoak diren ikertzea oso aberasgarria izan daitekeela. Hortaz, gure lanari hasiera emateko suertatutako hasierako galderak eta Hipotesiak aurkeztuko ditugu:

1.1. Hasierako Galderak eta Hipotesiak

Ikerketa hasieran, galdera hauek egin genizkion gure buruari ikerketa planifikatzeko asmoz:

- Zer nolako helburuak eskuratu nahi ditut?
- Zenbat denbora daukat?
- Zer nolako baliabideak ditut?
- Nolakoa da eskolan irakasten den geografia?
- Ikuspegi Ortodoxoa? Integratua? Bien arteko nahasketa?
- Zein material erabiliko dugu?
- Zein metodologia erabiliko dugu?
- Nola eskuratuko dut informazioa?
- Nola egituratuko dut lan?
- Zein argitaletxe ikertu?
- Zein desberdintasun egongo dira bi argitaletxeen artean?
- Zein Geografia gai aztertuko ditugu?

Egilea: Ion Linzoain Ramos

Eta hasierako galderen ostean, hipotesi hauek plazaratu genituen:

- Geografia ikuspegi integratu batetik eskolan aplikatuko da?
- Geografi ikuspegi ortodoxoa aintzinako gauza izango da?
- Korrante geografiko erregionala nabarmenduko da?
- Korrante geografiko kuantitatibista biztanleria lantzen den gaietan garrantzia izango du?
- Ikertutako testu liburuak egungo legeei eguneratuta egongo dira?

2. MARKO TEORIKOA: OINARRIA ETA IRAKASKUNTZA INPLIKAZIOA

Marko teoriko izena duen atal honi hasiera eman aurretik, esan beharrea gaude, gure lanaren oinarri izateko asmoarekin, hiru euskarri teoriko zehatz hautatu ditugula: alde batetik, Garapen Psikologia eta arlo honen inguruko Jean Piaget-en teoria eta Irakaskuntza Inplikaziorako bi teoria adierazgarri izango dira oinarrizko erreferentzia. Beste alde batetik, Geografia zientzia bezala eta bere korrante zein ikuspegi Geografikoak. Bestalde, erabili dugun hirugarren euskarri teorikoa egungo “eremu” kurrikularra izan da, hurrengo atalaren lehengo zatian garatzen da.

2.1 Garapen eta Ikaskuntzaren Psikologia

2.1.1 Garapenaren definizioa

Garapenaren psikologia giza garapenean bizi-zikloan zehar gertatzen diren aldaketa psikologikoen deskribapen, azalpen eta optimizazioaz arduratzen den zientzia da (Arranz, 1998). Hau da, gizakiarengan sorkuntza-garaitik (espermatozoidea obuluan sartzen denetik organismo berri bat sortzean) hiltzen den arte (bizi-zikloan zehar) gertatzen diren aldaketak aztertzen ditu.

Giza garapenak, oro har, denboran zehar pertsonaren alderdi biologiko, psikologiko eta sozialetan gertatzen diren aldaketa *kualitatiboak* eta *kuantitatiboak* biltzen ditu.

Alderdi biologiko, psikologiko eta sozialetan gertatzen diren aldaketa kualitatiboak eta kuantitatiboak azaldu ahal izateko, giza garapenaren aldeak zehaztu beharrea gaude.

Giza garapenaren alderdiek izaera *holistikoa* dute. Ikuspegi holistikoa hiru alde bereizten ditu giza garapenean: *garapen fisikoa*, *ezagutzaren garapena* eta *garapen sozio-afektiboa*.

Egilea: Ion Linzoain Ramos

Garapenaren psikologiak, hiru aldeetatik, bereziki, aldaketa psikologikoak (ezagutzazkoak eta sozio-afektibokoak, hain zuzen ere) aztertuko ditu, baina aldaketa fisikoak ahaztu gabe, gorputz-aldaketek eragin psikologikoa baitute.

Laburbilduz, giza garapenean gertatzen diren aldaketa fisikoak, ezagutzazkoak eta sozio-emozionalak erlazonaturik daude eta elkarri eragiten diote.

Giza garapenaren diziplina zientifikoa errazago ulertzeko planteatzen dira hiru “alde” horiek, garapena osotasun bat baita eta, hiru aldeek bizi zikloan zehar elkarri eragiten baitiote.

2.1.2 Garapenaren aroak

Bizi-zikloa oso luzea izan daitekeenez, garapenaren psikologiak hainbat adin-tarte bereizten ditu horren barruan.

Hala, gai honekin erlazioa duten eskuliburuek egiten duten bezala, honako aro hauek bereizten dira: jaiotze-aurreko aroa, lehen haurtzaroa (0-2), haurtzaro goiztiarra edo eskolaurrea (2-6), tarteko haurtzaroa edo lehen hezkuntza (6-12), nerabezarora (12-20), helduarora (18-65) eta zahartzarora (65<).

Horrek ez du esan nahi adina, berez, aldagai iragarlea edo azaltzailea denik. Adin-tarteak aldagai multzo zabal baten adierazle dira soilik.

Aipatzekoa da, gure ikerketa Lehen Hezkuntzako testu liburuetan ematen denez, zehazki *Tarteko haurtzarora*, kontzentratu egingo garela. Bertan, aurrerapauso handiak gertatzen dira hainbat gaitasunetan, hala nola irakurtzeko, idazteko, zenbatzeko, mundua ulertzeko eta era logiko batean pentsatzeko gaitasunetan batik bat.

Gainera, arrakasta akademikoak eta gurasoekiko egokitzapenak izugarrizko garrantzia hartzen dute garai honetan. Garapen psikosozialan eta moralan ere, izugarrizko aurrerapausoak gertatzen dira eta familia-harremanen kalitateak egokitzapen emozional eta sozialean eragina izaten du. Hau guztia dela eta, goazen zehatzago aztertzerara.


2.1.2.1 “Tarteko Haurtzaroa” 6-12 urte bitarte

Tarteko haurtzaroa edo Lehen Hezkuntza garaia, 6-12 urte bitartean ematen ohi da normalean, eta hau zehatzago aztertzeko hiru garapen mota ezberdinduko ditugu: Garapen biosoziala, Ezagutzaren garapena eta Garapen psikosoziala.

Garapen Biosoziala

(Trebol, 2011, UPNA/NUP) irakaslearen esanetan;

Haurrek garai honetan gorputzaren kontrola lortzen dute, eta alderdi psikomotorean aurrera egin ahal izateko muga argi eta zehatzak jarri beharko zaizkie. Haurrek muga horiek zeintzuk diren ikasiko dute eta hauek gainditzen saiatuko dira, bai eta haien garapena aurrera egingo du eta, horregatik, erregulazio garaia izango da. Gorputzaren kontrola bereganatzen saiatze horretan lateralitatearen egituratzea antzemango dute, garunaren alde bat eta bestearen arteko oreka lortuz.



1.Irudia. Garapen Biosoziala 6-12 urte, Fernando Trebol (UPNA/NUP)


Ezagutzaren garapena

(Trebol, 2011, UPNA/NUP) irakaslearen esanetan;

Dimentsio honen baitan oso aldaketa garrantzitsuak ematen dira, haurren funtzionamendu kognitiboan gaitasunak bere biziko lehentasuna hartzen du. Prozesu kognitiboak garatzen joango dira eta eskolaren eragina beharrezkoa izango da hauek ongi garatu ahal izateko. Horien artean Oinarrizko Prozesu Kognitiboen zerrenda labur bat honakoa da: Behaketa, identifikazioa, alderatzea, sailkatzea, antolatzea, analizatzea, sintetizatzea, indultzeta, deduzitzea eta ondorioak ateratzea. Guztiak garapen kognitiboa aurrera eramaten lagunduko dutenak dira, batetik bestera eta ordenan pasatzen joango delarik. Bestetik, eta goian aipatutako bakoitzaren baitan, hau da, aldiro lauak eragiten dutela, eta prozesu kognitibo orokorrak dira: Pertzepzioa, oroimena, motibazioa eta, arreta-kontzentrazioa.

Egilea: Ion Linzoin Ramos

Garapenaren Psikologian zehazten diren gaitasunak zein trebetasunak kontuan hartuko ditugu; batez ere helburu didaktikoen idazketarako edo eta hauen aukeraketarako, non oinarrizko prozesuak modu kontzientean landu beharko ditugun, ikasleek modu kontzientean erabili behar baitituzte.



2.Irudia. Ezagutzaren Garapena 6-12 urte, Fernando Trebol (UPNA/NUP)

Garapen Psikosoziala

(Trebol, 2011, UPNA/NUP) irakaslearen esanetan;

Hurrei harreman ezberdinak antzematen erakatsi behar zaie. Gizarte harremanak ezagutza batean bihurtu egin behar da. Eskola garaian haurren gizarte ezagutzan eragina izango du; gizarte sisteman eta garapen kognitiboan eragin delako; eskolako jardueretan gizarte gertakarien multzoak antolatzen dituzten sistemak sortzen haste dira. Eskola garaian ematen diren harremanak hiru ataletan banatu daitezke: Familia, eskola eta kideak.

Egilea: Ion Linzoain Ramos


Familia harraren garapen faktore determinatzaileena izango da, motibazioa, auto-estima, menpekotasun eta agresibitate bezalakoan aurrean erantzuna eman dezaten, etab. Gurasoek seme-alabekin dituzte hezkuntza-praktikak, hainbat faktore determinatzen dituzte; adina, sexua, jaiotza-ordena eta nortasunaren ezaugarriak; bestetik gurasoekin zerikusia dituzten faktoreak daude, sexua, lehendik duten esperientzia, nortasunaren ezaugarriak eta hezkuntza-maila. Azkenik, elkarreraginaren egoerarekin zerikusia duten faktoreak daude, etxebizitzaren ezaugarri fisikoak eta testuinguru fisikoa.

Eskolak, familiarekin batera, haurraren eragin gehien duen gizarte-erakundea da. Eskola determinantea izango da haurraren garapen kognitibo eta sozialerako. Kideak dituzten funtzioak, askotan gurasoek dituzten antzekoak dira. Batzuetan atxikimendu harreman bihurtzen dira.

Gaira honetan garapen moralean aldaketa nagusi bat eman da eta fantasiatik errealtatera igarotzearena da. Haurraren gizarte ingurunean eragindako sentsibilitatea, ingurune horretan haurrak dituen elkarreraginaren ondorioa da. Adin honetan lortuko dutena da hainbat faktorek sustatuko diena: Besteen ikuskera ulertzeko aukera ematen die; bakoitzaren aurreiritzi moralak adierazteko aukera daukate; aurre-iritzi horiei jarraiki jokatzeko eta, azkenik, elkarreraginetan haurrak bere iritziak eta ikuspuntuak errespetatu eta kontuan hartzea ahalbidetzen die.

Nortasunaren garapena ematen da eta norberaren ezagutza aztertzeke, auto-kontzeptua eta auto-estimua kontutan hartu beharko dira ere. Auto-kontzeptuan, haurrek bere burua besteengandik berezitzen dute eta ezaugarri fisikoetatik ere, haien dimentsio soziala garatzen joango delarik. Bestetik, auto-estimua, haurrek beren buruez duten ezagutzaren ebaluazioari edo iritziari egiten dio aipua eta haurrek dituzten jokabide, harreman, etab., eragin dezake.

Egilea: Ion Linzoain Ramos



3.Irudia. Garapena Psikosoziala 6-12 urte, Fernando Trebol (UPNA/NUP)

Egilea: Ion Linzoain Ramos

2.1.3 Jean Piaget

1. Biografia

2. Teoriaren kontzeptu nagusiak

2.1 Garapenaren faktoreak

2.2 Garapenaren mekanismoak

2.3 Eskemaren kontzeptua

3. Garapenaren pausuak

3.1 Ezaugarri orokorrak

3.1.1 Operazio mentalaren kontzeptua

3.1.2 Pentsamendu formala eta konkretuaren arteko desberdintasuna

4. Teoriari kritikak

4.1 Garapenaren periodoen kontzeptuari

4.2 Garapen periodoen orokortasunari

5. Piaget-en teoriaren inplikazioak hezkuntza eta garapen sozialari buruz

1.Biografia

Jean Piaget 1896ko abuztuaren 9an jaio zen Neuchâten, Suitzako hiri txiki batean.

2.Teoriaren kontzeptu nagusiak

Piaget-ek "Epistemologia genetika" marko teoriko bat sortu zuen, estruktura biologikoak eta intelektualak erlazionatuz.Honen helburu nagusia ezagutzaren garapena ikertzea zen.

Proposatutako teoria horren ekarpen nagusia, karaktere aktiboa da, zeinek bere ezagutza propioa eraikitzen du.Organismoak ingurunearekin harremanetan dago, eta bertan egindako akzioen bidez ezagutu dezake ingurua.Modu honetan harremanetan daude forma biologikoak (organismoa) eta epistemologikoak(ezagutza).

Organismoak, intelektualki garatzeko, ingurutik datorren informazioa bildu eta berreraiki beharko du.Horrela, gizakiaren garapenaren ikuspuntu berri bat sortu zen: konstruktibismoa.

2.1 Garapenaren faktoreak

Lau faktore aurki ditzakegu ezagutzaren eskuratzea azaltzen dutenak:

- heltzea
- mundu fisikoarekin interakzioa
- orekatzea

Heltzea,herentzia genetikoari egiten dio erreferentzia,estruktura genetiko horren bitartez subjektuak inguru fisiko eta sozialarekin ekintzak egiten ditu.

Nahiz eta organismoaren joera oreka izatera den, mundu fisikoarekin interakzioak desoreka sortzen du, eta desoreka hori gainditzeko Piagetek hirugarren mekanismo bat proposatzen du: Orekatzea

2.2 Garapenaren mekanismoak

Piagetek baldintza-ile heredatu bi mota definitu zituen:

Egilea: Ion Linzoain Ramos

-“Invariantes estructurales”: organismoak dituen ezaugarriak dira, eta mugak jartzen dizkigute ezagutzan.

-“Invariantes funcionales”: organismoak bere ezagutza eraikitzeke dituen funtzionamenduko mekanismoak dira. Hauetan, asimilazioa eta akomodazioa aurki ditzakegu. Asimilazioa eta akomodazioa, ezagutza eraikitzeke bitzta osoan zehar erabiltzen diren mekanismoak dira.

Bai invariante estrukturalak baita funtzionalak, jatorri biologikoa dute, hau da, gizaki espezie osoan berdinak dira guztiontzako.

2.3 Eskemaren kontzeptua

Asimilazio eta akomodazio kontzeptuak hobe ulertzeko, Piaget-en eskemaren kontzeptuarekin erlazionatu egin behar dira. Piaget jaunarentzat, eskemak funtzionamenduaren oinarritzko unitate psikologikoak dira. Garapenaren periodo bakoitzean, ezagutzaren eskema desberdinak eraikitzen dira. Hauetatik, lehenengo eskema sinpleari akzio eskema deritzo.

Ondoren berriz, errepresentazio eskemak garatzen dira, haurrak errepresentazio mentalak sortzeko gai direnean. Garapenaren eboluzioan, gero eta konplexutasun gehiagoko eskemak sortzen dira, gero eta abstraktuagoak. Pertsona baten maila intelektuala, garatutako eskemen kantitatea, hauen jatorria, nola konbinatzen dituen, eta nola antolatzen dituen araberakoa da.

Piaget-en ustetan, garapena estadio edo etapa ezberdinen sekuentzia da, eskema zehatz batzuen antolamendu eta erabilgarritasuna ezaugarri dituelarik. Horrela, lau estadio bereizi zituen:

- 0-2 urte: sentso-motorea
- 2-7 urte: operazio aurreko fasea
- 7-11 : operazio zehatza
- 12-tik aurrera: operazio formala

1. Estadioa: 0-2 urte: sentso-motorea

Jaiotzatik urte eta erdi-bi urterako epealdia. Umeak bere zentzumenak erabiltzen ditu eta gaitasun motoreak bere ingurua ezagutzeko. Hasieran bere erreflexuetan konfiantza dute eta ondoren bere gaitasun sentsoaletan eta motoretan.

Lehen mailako erreakzio zirkularrak: 1-4 hilabete bitartean. Plazerra sortu dioten ekintzak errepikatzen ditu. Adib: Behatz lodia xurgatzea, hau, bularra xurgatzearen ordeko ekintza bat da.

Bigarren mailako erreakzio zirkularrak: 4 hilabete- 1 urte. Bere ekintzak ingurura bideratzen ditu, objektuak mugitzeko. Bere ekintzak zer ondorio dakarren behatzen du eta horregatik ekintza horiek errepikatu egiten ditu.

Hirugarren mailako erreakzio zirkularrak: 12-18 hilabete. Aurreko prozesu berbera jarraitzen du baina aldaketa batzuekin. Adib: Haurrak objektu bat hartzen du eta berarekin gauzak ukitzen hasten da, orain arte objektuak ez zituen zuzenean bere zentzumenak estimulatzen, objektua ez du existitzen.

18 hilabetetatik aurrera umearen burmuina gai da berak egiten dituen ekintzen ondorioak zeintzuk diren konturatzeko. Objektu bat erabiltzeko gai da atea irekitzeko. Lehenengo joko sinbolikoak hasten dira: goazen jolastera ama eta aita izatera...

2. Estadioa: 2-7 urte: operazio aurreko fasea

2-7 urteetako epealdia. Aurreko etapako erreakzioak barneratzen dira, ekintza mentalak gertatzen direlarik, baina ez dira eragiketak izatera iristen, bere zehaztugabetasunagatik, desegokitasunagatik eta itzulgarritasun ezagatik.

Etaparen honetako ezaugarriak: joko sinbolikoa, intuizioa, egozentrismoa, itzulgarritasun falta, eta justaposizioa.

3. Estadioa: 7-11 : operazio zehatza

7-11 urteetako epealdia. Ekintzak, arazoak konpontzeko ekintza logikoak dira. Sinboloak modu logiko batean erabiltzen ditu, eta gordetzeko gaitasunagatik orokortzera iristen da.

Egilea: Ion Linzoain Ramos

6-7 urterekin haurra zenbaki kantitateak gordetzeko gai da, luzera eta bolumenak. Umeak ulertzen du kantitatearen iraunkortasuna, hau da, kantitatearen forma aldatzen bada, kantitateak berdin jarraitzen duela. Lehenengo etapetan umeak ur litro bat baina botila luze eta finean eta botila baxu eta lodian, kantitate desberdina zegoela uste zuen. Botila luze eta altuan kantitatea handiago dela uste dute aurreko etapetan. Eragiketa konkretuetako fasean dagoen ume batek berriz, kantitatea bi botiletan berdina dela badaki.

7-8 urterekin haurrak materialak mantentzeko gaitasuna dauka. Adibidez: Buztinezko bola bat hartu, eta berarekin bolatxo asko egin. Umeak badaki bolatxo txiki guztiak elkartuz lehengoko bola handia lortzen dela. Beraz, itzulgarritasuna ulertzen du.

9-10 urterekin gainazalaren iraunkortasuna ulertzen du. Adibidez: paperezko karratuak begiratu, badaki denak elkartuz, gainean jarriz, bananduta... gainazal berbera dutela.

4. Estadioa: 12-tik aurrera: operazio formala

12 urtetik aurrera. Bere gaitasunak egoera abstraktuetara aplikatzeko zailtasunak dauzka. Adibidez: Heldu batek ume potolo bati ez burla egiteko esaten dio eta berak zer egingo lukeen berari esanez gero. Bere erantzuna hau da: ni ez naiz potoloa.

Laburbilduz, estadio sentso-motorean dagoen subjektu batek, akzio eskemak erabiliko ditu, eta estruktura kognitibo honen bidez erlazionatuko da inguruarekin. Bestalde, helduek, errepresentazio eskemak erabili egingo dituzte eta estadio operazio formala garatu ondoren, hipotesiak erabiliz arrazonamendu logiko batera iritsi gaitzke. Honela, esan beharra dago, helduen eskema mota hauen erabilpenak, mundu desberdin baterantz irekitzen gaitzuztela, haurrek izan ez dezaketan ikuspuntu guztiz desberdin bat eskaintzen baitigute.

3. Garapenaren pausuak

Periodo bakoitzaren adinak ez dira zehatzak, baina pertsona guztiek, beren garapen intelektuala zehazten duten lau estadio horietatik pasa beharko dira. Beraz, gaitasun intelektualak jarraitzen duen eskuratze ordena ez da adina.

Honela, esan beharra dago, Piaget-en teoriaren ezaugarri nagusia estadio desberdinen artean dagoen jarraitasuna dela.

3.1 Ezaugarri orokorrak

Esan dugun bezala, lau estadio daude. Lehenengoa, estadio senttorio-motorea, jaio berriko haurra aktibitate erreflejtik, “conducta intencional” goiztiarrera eta “capacidad simbolica” pasatu egiten da.

Jaio-berriak badu kondukta fijo batzuk, eta hauek transformatzen doaz bizitzaren lehenengo hilabeteetan zehar, akomodazio eta asimilazio mekanismoen bidez. Horrela, periodo senttorio-motorea aurrera doan bitartean, gero eta konplexuagoak dira.

Estadio hau guztiz garatua dago 18-24 hilabete tartean, eta hortik aurrera, haurrak errepresentazio mentalak edo sinboloak erabili ditzakete.

3.1.1 Operazio mentalaren kontzeptua

Piaget-ek, operazio mentala, objektuekin transformazio mentalak egiteko aukera eskaintzen duen barneko akzio bezala definitu zuen.

Operazio mentalaren auzia aldiz, “noción de reversibilidad” kontzeptuarekin erlazionatuta dago, matematikako hizkuntzarekin zuzenki lotuta dagoena. Akzio bat “reversible” dela esan dezakegu bere hasierako egoerara itzuli daitekeenean. Plastilinarekin adibidea.

Piagetek 3-6 urte bitarteko haurren pentsamendua sakon ikertu zuen, eta hainbat muga aurkitu zituen arrazoitzeko momentuan, pentsamendu operazioetatik urruntzen dituenak. Honengatik, hain zuzen, periodo horren barnean beste bat bereizi

Egilea: Ion Linzoain Ramos

zuen: azpiperiodo preoperatorioa(2-6/7). Esan daiteke preoperatorioa den haurra ezin duela guztiz arrazomendu inductiboa erabili, ezta deduktiboa ere ez. Beraz, “Transduktiboa” den arrazomendua erabiliko dute, hain zuzen, partikularra eta partikularren artean erlazioak jartzen dituen.

3.1.2 Pentsamendu formala

Oraindik 6/7-11/12 urteko haurren pentsamendua, errealitateko aspektu zehatzei dago lotuta, eta lotura horretatik aldendu egin beharko du, pentsamendua abstraktoa edo formala izan dadin.

4. Teoriari kritikak

Piaget-ek jasotako kritika garrantzitsuenak bi gauzen inguruan izan dira batez ere, alde batetik , garapen estadioen kontzeptua bera, eta bestetik , estadio hauen orokortasuna.

4.1 Garapenaren periodoen kontzeptuari

Ikusi egin zen subjektu berdinak ez zituela arazo desberdinak estruktura antzekoarekin, ezta operazio bera behar zutela ere.

Bestetik, ikusi egin zen estadio desberdinetan zeuden subjektuak, erantzun berdinak ematen zituztela lan zehatz batzuetan. Lehenengo kasuan, “desfase horizontal” bati buruz arituko ginateke, eta bestean , “desfase vertical”-a.

Horrela, argi geratu da desfase hauei esker, errealitatean ez dugula modu berean erantzuten. Hori dela eta, ez dugu beti estadio bakoitzeko estruktura zehaztua erabiltzen.

Piaget-en ikuspuntua “dominio general” batekoa dela esan dezakegu, pentsamenduko operazioak modu orokorrean aplikatzen direla baieztatzen duelako. Baina honen aurrean, “dominio especifico”-a dagoela esan beharra dago, pentsamenduaren estrukturak aldatu egiten direlako problemaren edukien arabera.

Azkeneko honen arabera, arazo batzuk besteak batzuk baino errazago gainditu egiten ditugu, ziurrenik eduki horietaz ezagutza batean bestean baino prestakuntza gehiago izan dugulako.

4.2 Garapen periodoen orokortasunari

Piaget-en ustetan, estadioen ezaugarri garrantzitsuenetariko orokortasuna da. Hipotesi hau baieztatzeko modua oso sinplea da: inguru kultural desberdinetako subjektuak konparatu beharko dira, beren pentsamenduan ezaugarri berak dauden ikusteko, eta jasotzeko ordena berdina izan den ala ez zehazteko.

Baina ikerketa batzuek operazio formalak orokorrak ez diren pentsamendu formala ez dago garatua oraindik.

Laburbilduz, nahiz eta estadioen ordena konstantea izan, beren jasotzeko modua ez da automatikoa ezta unibertsala ere, eta hainbat ezaugarri beharrezkoak dira maila operazio batera iristen laguntzeko.

Ikerketa batzuek zehaztu duten bezala, kultura eta inguruneak zerikusia dauka operazio formalak jasotzeko momentuan. Orokorrean, lan hauek desberdintasun asko aurkitu dituzte pentsamendu formalean subjektua artean, eta garatu gabeko gizarteetan pentsamendu mota hori ez dute agertzen.

Konklusio gisa esan behar da pentsamendu formala ez dela orokorra, subjektua guztiek ezingo direlako pentsamendu mota horretara iritsi. Beraz, inguru soziala eta esperientziak beharrezkoak dira modu formalean pentsatzeko.

5. Piaget-en teoriaren inplikazioak hezkuntza eta garapen sozialari buruz

Piaget-en teoria marko konstruktibista baten barnean dago, ezagutzak modu aktibo baten bidez eta esperientziarekin batera interakzionatuz eraikitzen dituelarik haurrak.

Hasiera batean, teoria konstruktibista batek ezagutza soziala nahiz soziala ez denaren garapena azalduko luke, eraikitzeko mekanismoak berdinak izango liratekeelako.

Aspektu hori da, hain zuzen, hezkuntzan influentzia izan duena. Ikaslea subjektu aktiboa da eta informazio garatzen den bitartean, bere ezagutzaren eskemak garatzen dira. Beraz, irakasleak ikasleen mailara egokitu beharko dira, garapeneko une bakoitzean.

Beraz, Jean Piaget jaunaren teoriak baliatuz, eta gure ikerketaren oinarri diren LH-ko 5.mailako ikasleen garapen momentura egokitzeko, esan dezakegu ikasle hauek honako garapen egoeran egon beharko luketela: “ 7-12 urte bitarteko Operazio Zehatzen etapan” hain zuzen.

Honela, modu orokorrean adierazteko, esan genezake etapa honetako ikasleak, honako itemak beteko dituzten eskemak egiteko gai izan beharko luketela:

-Errealitatearen irakurketa egokia eta pertzepzioak dakartzan agerpenak

-Errealitatea, egitura ezberdinetan antolatu.

-Pentsamendu logikoaren garapena

-Egoera zehatzetarako  prozesu logikoak erabili

-Ezagupen aldaketak: sailkapena, espazio eragiketak eta mapa kognitiboak

-Memoria estrategiak hobetu:errepikapena, antolakuntza eta elaborazioa

-Informazioa oroimenetik berreskuratzeko gaitasuna: ezagupena, gogorapena eta elaborazioa

Egilea: Ion Linzoain Ramos

2.1.4 Irakaskuntza Teoria Adierazgarriak

Azkenik, marko teoriko atalari amaiera emateko, Irakaskuntza Inplikaziorako proposak iruditzen zaizkigun bi irakaskuntza teoria adierazgarri azaltzea egoki iruditzen zaigu, baterik Jerome Bruner jauna eta bere Ezagutzaren Teoria eta bestetik David Ausubel eta bere Ikasketa Adierazgarriaren Teoria.

2.1.4.1 Jerome Bruner

Bruner-en teoria eta Ezagutzaren Eraikuntza

Jerome Bruner kognitibismoa bultzatu duten psikologoetariko bat da, eta esan beharra dago hauei esker Estatu Batuetan Piaget eta Vygotski-ren ezagutza eman dela.

Honen ildotik Bruner-ek irakaspen teoria bat garatu du, garapen prozesua eta ikasketa prozesua erlazionatzeko.

Zehatzago adierazteko, **Bruner-en ezagutzaren ikasketa eredua** aztertuko dugu:

Lehenik informazioa hartzaile sentensorial eta pertzeptiboez baliatuz lortzen da. Geroago sartu berri den informazioa eraldatzea lortzen da lortu berri den informazioa sailkatuz eta kodifikatuz. Aipatzekoa da, informazioaren eraldaketa lortzeko 3 sistema erabiltzen direla:

1. Enaktibo: Ekintzen bidez lan egiten duen sistema, manipulatzeko erreza da.
2. Ikonoa: Irudien bidez aritzen den sistema aurrekoa baino garatuagoa baina hizkuntza erabiltzen ez duena.
3. Sinbolikoa: Informazioa kodifikatzeko hizkuntza sinbolo sistemak edo idazkera matematikoa erabiltzen duena.

Hiru sistema hauek adin goiz batetan garatzen dira, Piaget-en epealdien antzera gehienetan eta heldutasun prozesu bat eskuratu ondoren ematen dira bizitza osorako mantenduz. Esan beharra dago, sinbolikoa hiruetatik azken garatzen dena dela eta ikastaldi abstraktuena ere.

Instrukzioaren teoria

Bruner jaunak proposatzen duen instrukzioaren teoriaren barne, garapen ezaugarriak (enaktibo, ikoniko, sinboliko) hala nola eduki instruktiboak (gaiaren egitura eta sekuentzia) zein ikuspegi motibazionalak kontuan hartzen dira.

Haurrei kontzeptuak progresio egoki batean azaltzen zaizkie beren adinarekin bat egokia den egituraz baliatuz. Horrela Bruner-ek kurrikulum-a espiral batetan egituratzeko proposatzen du ezagutza mailak hobeto eta errazago sailkatzeko. Gainera, Bruner-en teoria honek ikaslea ikasten ikasteko bultzatzen du, informazio gutxiago pilatzeko eta hausnarketa garatuz.

Aurkikuntzaren bidezko ikasketa

Bruner-ek ikasleek problemak ezberdinak ebazteko gaitasunak lortu eta bizitzako arazoei aurre egiten jakiteko proposaturiko metodoa. Honela ikasleak bere kabuz lortzen ditu ezagutzak baina irakasleen laguntzaz gidatuta. Hau lortzeko, ikasleek gaiaren egitura ezagutu eta ulertu behar dute (hasierako nukleotik beste ideietara heltzen ahal izateko) eta berauek erlazionatzeko.

Irakasleen laguntza ezinbestekoa da ikasleen estimuluak pizteko eta ikasleak arakatzailer aktiboetan sortzeko. Azken finean, ikasleek arrazonamendu induktiboaren bidez (adibide zehatzetatik orokorretara joanez) ikasiko dute. Ondorioz, aurkikuntza gidatua emanen da (Ausubel, Novak eta Hanesian 1978).

2.1.4.2 David Ausubel

Ausubel-en Ikasketa Adierazgarriaren teoria

David Ausubel-ek (1963, 1968) adierazitako teoria honek, eskolako testuinguruan ematen diren ikasketa mota ezberdinak azaltzen ditu. Horrela Ausubel-ek eskolan ematen diren ikasketen artean bereizketa bat egiten du :

1. Ikasketa Abegikorra: Ikasleak ikasi behar dituen edukiak jadanik prestatuak jasotzen ditu.
2. Aurkikuntzaren bidezko ikasketa: Edukiak ikasleak berak aurkitu behar ditu.

Egilea: Ion Linzoain Ramos

3. Ikasketa Adierazgarria:Ikasi behar diren edukiak aurrekoekin nabarmen erlazionatu egiten direnean ematen da.Ikasleak jarrera egoki bat izan beharrezkoa da.3 mota: errepresentazionala, kontzeptuala eta proposizionala.
4. Ikasketa memoristikoa:Ikasleak kontzeptuak buruz eta ulertu gabe ageri diren bezala ikasten dituenen.

Ausubel-ek ikasketa adierazgarria azpimarratzen du irakaskuntza tradizionalaren aurrean baita ikasketa abegikorra.

Irakaskuntza adierazgarria

Metodo honekin irakasleek edukiak modu antolatu batean aurkezten dituzte, egitura kognitiboetara egokituz ikasketa gauzatu aurretik.ausubel-ek pauso hauek jarraitzea gomendatzen du irakaskuntza adierazgarriaren praktikan:1-Ikaskai bakoitza aurkeztu kontzeptu orokorretatik partikularretara joanez.2-Modu sekuentziatu batetan eduki berriak aurkeztu, antolaketa logiko batez baliatuz eta ikasleen egitura kongnitiboak kontuan izanda.3-Ikaslearen aktibitatea bultzatu, material berria kodifikatzeko(etxeko lanak edo galderak).4-Ideia garrantzitsuenen errepasso batekin amaitu.

Aurreko antolatzaileak

Edukiak aurkezteko erabiltzen dira, eta ikasleen atentzioa ideia garrantzitsuenetan biltzea dute oinarri.Bi motakoak izan daitezke adierazgarriak eta alderatuak.Antolatzaile adierazgarriek ikasleei ezagutza berriak ulertzeko informazioa ematen dute.Antolatzaile alderatuek aldiz, eduki berriak ikasleek aurrez ikasitako materialekin alderatzen dute erlazionatu ahal izateko eta ikasketa errazteko.

Kontzeptu mapak

Kontzeptu ezberdinak erlazionatzeko erabiltzen den errepresentazio grafikoa.Tresna metakognitibo honek ikasleengan ikasketaren garapen adierazkorra errazten du.Kontzeptuak hierarkikoki antolatzen dira garrantziaren arabera eta hitz klabeak erabiliz osatzen da.Funtzio ezberdinak ditu:Funtzio motibatzailea(ikaslearen arreta irakaslearen egitura kontzeptuarean biltzea), funtzio arakatzaila(ikaslearen aurreko ikasketak arakatzea) eta ikasketa berrien gida funtzioa(gida antzera erabili ahal izateko).

Egilea: Ion Linzoain Ramos

2.2. Geografia

Marko teorikoaren bigarren atal honetan, Geografia zientziaren hainbat ezaugarri aztertuko ditugu, gure ikerketaren oinarrietako bat delarik. Beraz, lehenik Geografiaren definizioa zientzia bezala azalduko dugu, horren ostean korrante Geografiko ezberdinak bereiziz eta ikuspegi Geografikoekin bukatzeko.

Esan beharra dago, lehenik eta behin, Espazio Geografiko kontzeptua ulertzea ez dela batere gauza batere erraza, eta berau azaltzeko paradigma bat baino gehiago dagoela; hau da: ideia, teoria, kontzeptu eta lan teknika multzo bat da, Geografo talde batek erabilia. Horregatik esan dezakegu Geografia veste zientziak bezala, ez dela paradigma bakarreko zientzia, eta modu asko daudela kontzeptu berdina ulertzeko, izan ere “...cada paradigma proporciona respuestas pero siempre parciales y limitadas a los problemas que plantea la enseñanza-aprendizaje de la Geografía” (Rodríguez Lestegás, 2000,47). Baina hala ere, definizio orokor bat ematen saiatuko gara.

2.2.1 Definizioa

Geografia, espazio geografikoa aztertzen duen zientzia da; hau da, espazioan eragiten duten geo-faktore ezberdinen arteko elkarreaginaren emaitzen azterketa hain zuzen.

Bertan aztertzen dira, Lur planetaren lurrazaleko fenomeno biotiko, abiotiko eta antropikoen arteko elkarreaginak zein aldaketak eta baita horien banaketa edo hedapen espaziala ere.

Orain, jadanik gaur egun Geografiatzat zer ulertzen den azaldu ondoren, aipatzekoa da Geografiak izan duen bilakaera kontzeptualizazio honaino ailegatzeko, denboran zehar korrante Geografiko ezberdinak sortu zirelarik.

2.2.2 Korrante Geografikoak eta bere bilakaera

ANTZINAROA

Geografia zientzia bezala ez zen existitzen. Garai honetan, Mapak matematikoen, kosmografoek, historialariek eta bidaiariek egiten zituzten. Mapen helburua hauxe zen: Lurraldearen kokapena zehaztu eta Lurraren forma eta tamaina adieraztea. Garai

Egilea: Ion Linzoain Ramos

honetan, Geografia matematiko-astronomikoa garrantzia izan zuen eta honek Lekuen deskribapena bultzatu zuen. Gainera, aipatzekoa da espazioaren ezagupenak izaera guztiz praktikoa duela, bertako ekonomikoa eta politikoa ideologiko eta kulturala ezagutzeko. Honela, herriei buruzko ideiak eta kultura ere transmititzen zituzten.

ERDI AROAN

Kristauek eta musulmanek euren ideologia erlijiosoaren arabera irudikatu zuten mundua, beraz Erlijioaren eragina oso sendoa izan zen Geografian. Honela, garai hoentan toki geografiko bakoitzaren ezaugarri miressgarriak azpimarratu nahi izan ziren eta nabigazioaren beharizanen eraginez, XIV. eta XV. mendeetan, mapa portulanoak egin ziren (Portulano de Bartolomé Pareto de 1455).

ARO MODERNOAN

XVI.mendean, lur berrien irudikapenak kartografia bultzatu zuen. Mercator jauna garai honetako kartograforik aipagarriena da, 1595ean bere “Mapamundia” egin zuelarik. Berak Kartografian sistema berri bat erabili zuen, proiektzio zilindriko bat hain zuzen (Merkator sistema), meridianoak eta paraleloak elkar modu perpendikularrean mozten duten sistema alegia.

XVIII. mendean, Frantzia gorteko Cassini kartografoekin kartografia modernoa sortu zen: Mapatik ezaugarri piktorikoak desagertu ziren eta proiektzioak eta marrazkiak hobetu egin ziren. Gainera, Kartografia Geografiatik zientzia independente bihurtu zen.

ARO GARAIKIDEA

Industria Iraultzak eta kapitalismoak esplorazio bidaiak bultzatu zituen. Honela, XIX. mendearen lehenengo erdian Geografia zientzia bezala sortu zen eta Unibertsitate ikasketetan sartu zen. Gainera, Elkarre Geografikoak sortu ziren aurkikuntza bidaiak sustatzeko eta hauetan lortutako emaitzak zabaltzeko.

XIX. mende honen hasieran, Alemania bi izen bereizgarri agertu egiten dira: Humboldt (1769-1859) eta Ritter (1779-1859). Aipatzeko da, Humboldt jaunak garrantzia ematen

diela gertakizun fisikoen ikerketari eta Ritter jaunak aldiz, Gizakien eta Inguru fisikoen arteko erlazioei.

GEOGRAFIA ZIENTZIA BEZALA, GEOGRAFIA MODERNOA

Esan beharra dago, Geografia modernoaren barnean bi epealdi bereiztuko ditugula: (1850-1950) bitarteko korrante klasikoak eta 1950. urtetik aurrerako korrante Geografikoak.

- (1850-1950) urte bitarteko Korrante klasikoak hiru motakoak dira:

-Korrante determinista-Positibista: Inguru fisikoek gizarteak zehazten dituzte (Ratzel).

-Korrante posibilista-Erregionala: Inguruak, gizakiari zenbait posibilitate ematen dizkio, berak birmoldatu ahal izateko (Vidal de la Blanche). Gainera, bere ikerketak “eskualde” kontzeptuan zentratu egiten ditu.

-Korrante Anarkista: Proposatzen duen ereduaren xedea, ingurune naturalarekin modu begirunetsu batez garatzea da baita ondorio ekologikoetaz arduratu (Reclus).

Esan beharra dago, denborarekin bat, hiru korrante klasiko hauek korrante Geografiko berrien sorrera bultzatu zutela, 1950. urtetik aurrerako korrante Geografikoak sortuz.

XX.mende bukaerako korrante Geografiko hauek zehatzago ezagutzeko, begiratu hurrengo taula

1.Taula. XX. Mende bukaerako korrante Geografikoak

Geografia	Giltza kontzeptuak	Oinarritzko ideiak	Bigarren mailako ekarpenak	Zailtasunak	Espazioa
Ongizatea	Kontsumoa Produkzioa	Ekonomiatik eratorritako ongizate kontzeptua. Etorkizuneko gizartea askoz ere gizatiar	Justizia eta ongizate orokorraren kontzeptuak. Baliabide eta ondasunen banaketa	(PNB/BPG) aberastasun banaketa oso kuantitatiboa	Desberdintasun espaziala. Moldatutako espazio prozesu sozialei esker
Kuantitatibo	Informazio geografiko	Ikuspegi positibista.Metodo	Estatistikarekin dokumentatu.	Mekanizista. Lege espazialak	Geografiaren gauzaki.

Egilea: Ion Linzoain Ramos


	sistema (SIG/IGS)	zientifikoa. Eredu matematikoak, egiaztapenak	Dedukzio-hipotesi jolas simulazioak	antolaketa soziala kontuan izan gabe	Banaketa razionala, zenbakiaren mitoa. Kualitatibo itxurarik ez
Generoa	Ezberdintasunak neska eta mutil artean	Mugimendu feministei lotuta. Mundu anglosaxoi	Irakaskuntza ez sexista. Emakumearen garrantzia	Askotan emakumeetan bakarrik zentratuta	Desberdintasun espazial eta sozialak gizon eta emakumeei emandako rolengatik
Humanista	Bizitako mundua. Espazioa eta lekua	Balioen garrantzi, ideiak. Tesi kuantitatiboen kontra	lkerketa Kualitatiboak: etika, irudimena, sentimenduak	Partzialtasuna ideologia ezberdinei eta esperientziei	Bizitako espazioa
Pertzepzioa	Mapa kontzeptuala. Mapa mental eta kognitiboak	Inguru: ideia subjektiboa. Errealitate elementuak: singularrak-konstanteak Eskalak	Irakaskuntza adierazgarriarekin erlazioa. Simulazio ereduak	Indibidualismoa eta subjektibismoa	Hautemandako espazioa
Politika	Estrukturazioaren teoria. Mundu ekonomia	Estrategia militar hauteskunde geografía.3 maila geografiko: lokala, estatala, mundiala	Hiru mailen erabilpena	Hedapen txikia soziologia eta militar arloetatik kanpo	Ikuspegi politika lokalizazioekin erlazonaturik
Erradikala	Lur errenta-kostu sozialak-irabaziak	Analisi marxista: desberdintasunak hiri errentak, kontaminazioa	Inguru giro hezkuntza	Zenbait mekanizismo eta determinismo	Espazio produktu soziala
Soziala	Arlo sozialak funtzio ezinbestekoak	Ikuspegi interdiziplinarra	Arazo sozialen aurrean sentsibilizazioa	Eskola anitzak. Ikusmolde asko	Interakzioa espazio sozial/espazio fisikoa
Aplikatua	Planifikazioa	Helburu ekonomiko,	Herriko planifikazioaren	Eredu abstraktuak.	Zientziak espazioa modu

Egilea: Ion Linzoain Ramos

		militarrek, hirikoak... konponbideak proposatu. Lurralde antolaketa	inguruko kezta	Interesatutako talde sozialak ez dituzte kontutan hartzen	operatibo batean eraldatu. Bertan ikertzeko.
--	--	--	----------------	---	--

LLOPIS, C. (1996). Ciencias sociales, Geografía e historia en secundaria. NARCEA

Geografiaren bilakaera eta korrontea laburbiltzeko helburuarekin, begiratu hurrengo irudia:



4. Irudia. Geografiaren Bilakaera (Mariaje Aguillo)

<http://geografiamungia.files.wordpress.com/2011/05/koaderno-0-sarrera2.pdf>


Egilea: Ion Linzoain Ramos

Joera geografikoen eraginaren analisia Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
 Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria

2.2.3 Ikuspegi Geografikoak

Gaur egun oraindik, (Haggett, 1983) zioenez, Geografia irakaskuntzan ulertzeko eta irakasteko bi ikuspegi daude: bat “Ortodoxoa” eta beste “Integratua”. Hala ere, aipatu beharra dugu, bi ikuspegi hauek batera ageri ahal direla irakaskuntzan, bien arteko nahasketa suertatuz.

Zehatzago desberdintzeko bi ikusmolde hauek begiratu hurrengo irudia:



5. Irudia. Geografiaren barne-egitura (Haggett-etik, 1983).

Egilea: Ion Linzoain Ramos

3. IKERKETA / INVESTIGACIÓN

Ikerketaren atal honi hasiera emateko, esan beharrean gaude, gaur egun momentuz Nafarroan onartuta dagoen Hezkuntzako legea hauxe dela: **24/2007 FORU DEKRETUA**, Martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculuma ezartzen duena.

- <http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/curriprimaria1eusk.pdf>

Tamalez, gaur egungo egoera ekonomikoa dela eta, Ikastetxe Publiko askok ez dute Hezkuntza lege berriekiko curriculum-egokitzapen, hau da, testu liburu eguneratuak erosteko aukerarik eta ondorioz, mailegu zerbitzua erabililtzea dute irtenbide.

Hau horrela delarik, aipatzekoa da, praktikak egin genituen Ikastetxean, bertan mailegu zerbitzuarekin erabilitako liburuak ez zeudela legearekiko egunerotuak. Honela, gure ikerketaren funtsa ez da gaur egungo legearekiko egunerotuta dauden materialen inguruan ikerketa bat egitea, baizik eta errealitatean eskoletan erabiltzen den materialaren inguruan, beraz horregatik erabaki dugu mailegu zerbitzuko bi testu liburu aztertzea nahiz eta gaurkotutakoak ez diren.

Gainera, aipatzekoa da, gaur egungo legeari erreparatuz, Geografia barne hartzen duen arloaren izen ofiziala hauxe dela: “Natura, Gizarte eta Kultur ingurunearen ezagutza”. Baina ikastetxeetako mailegu zerbitzuan dauden testu liburuetan aldiz, “Inguruaren Ezaguera” izenez egiten zaio erreferentzia, eta hau horrela denez, gure lan osoan zehar errealitatean lantzen den izenez erreferentzia egitea erabaki dugu.

Hala ere, nahiz eta aztertutako liburuak egungo legeari ez diren egokitzen, lege honek ezartzen dituen curriculum egokitzapenek bermatu behar dituzten gaitasunak, helburu, eduki eta ebaluazio irizpideak zehaztea oso aproposa iruditzen zaigu.

Honela, **24/2007 FORU DEKRETUAK** hauxe ezartzen du:

Egilea: Ion Linzoain Ramos

Oinarrizko Gaitasunak:

1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna
2. Matematikarako gaitasuna
3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna
4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala
5. Gaitasun soziala eta herritartasuna
6. Arte eta kultur gaitasuna
7. Ikasten ikasteko gaitasuna
8. Autonomia eta ekimen pertsonala

Arloaren izena: “Natura, Gizarte eta Kultur ingurunearen ezagutza”

Arloaren barneko Geografiarekin erlazioa duten Helburuak:

1. Ikaslearen adinerako egokiak diren testu zientifiko, historiko eta geografikoak ahoz eta idatziz zuzen ulertu eta adieraztea. Arlo honetako berariazko hiztegia egoki eta zehatz erabiltzea.
2. Naturaren, gizartearen eta kulturaren ingurunekeko elementu nagusiak identifikatzea, beren antolaketa, ezaugarriak eta elkarreraginak aztertuz eta gero eta konplexuagoak diren eremuak pixkanaka menderatuz.
3. Nafarroaren identitate geografiko, historiko, kultural eta artistikoa ezagutzea eta bertako aniztasunak sortzen duen aberastasuna baloratzea.
5. Taldeko jardueretan parte hartzea, portaera arduratsu, eraikitzaile eta solidarioa izanez eta funtzionamendu demokratikoaren oinarrizko printzipioak errespetatuz.
6. Ezaugarri propioak dituzten gizarte eta kultur taldeetako kide izatea onartu eta aintzat hartzea, beste talde batzuekin alderatuta dauden desberdintasunak eta Giza Eskubideak errespetatu beharra baloratuz.
7. Gizakiek ingurunean egiten dituzten esku-hartzeetakoren batzuk aztertzea, horiei buruzko balorazio kritikoa egitea eta eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatu eta berreskuratzeko eta kultur ondarea zaintzeko jokabidea izatea.
8. Denboraren joanari lotutako aldaketa eta eraldaketak ikustea naturaren, gizartearen eta kulturaren ingurunean, eta aldiberekotasunaren eta segidaren erlazio batzuk arakatzea, ezagutza horien bidez beste garai historiko batzuk ulertu ahal izateko.
9. Naturaren, gizartearen eta kulturaren ingurunekeko gertaerak, kontzeptuak eta prozesuak interpretatu, adierazi eta irudikatzea zenbakizko kodeak, kode grafikoak eta kode kartografiak eta beste batzuk erabiliz.

Egilea: Ion Linzoain Ramos

10. Inguruneke elementu esanguratsuekin zerikusia duten galdera eta arazoak identifikatu, planteatu eta argitzea, horretarako informazioa bilatu eta tratatzeko estrategiak erabiliz, aieruak azalduz, horiek probatuz, konponbide alternatiboak aztertuz eta ikaskuntza prozesuari buruzko gogoeta eginez.

11. Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortzeko eta ikasteko nahiz ezagutzak partekatzeko tresna gisa.

Hirugarren zikloan, Geografiarekin zerikusia duten edukiak:

1. multzoa. *Ingurunea eta ingurune hori zaintzea*
4. multzoa. *Pertsonak, kulturak eta gizartearen antolaketa*
5. multzoa. *Aldaketak denboran zehar*
8. multzoa. *Nafarroako Foru Komunitatea*

Geografiarekin erlazioa duten Ebaluazio irizpideak:

1. Giza jokabideak ingurumenean izaten duen eragin positibo edo negatiboaren adibideak ematea; pertsonen, animalien, landareen eta beren inguruneen kutsaduraren ondorio batzuk deskribatzea, kutsadurari aurrea hartzeko edo murrizteko aukerak adieraziz, eta ura bezalako baliabideak xahutzearen adibideak ere ematea eta, horrekin batera, jarrera kontserbazionistak azaltzea.

2. Espainiako eta Nafarroako paisaia nagusien ezaugarriak ematea eta horiek osatzen dituzten agente fisiko eta gizatiar batzuk azaltzea, eta gizakien jarduerak lurraldean duten eraginari eta lurraldearen kontserbazioak duen garrantziari buruzko adibideak jartzea.

4. Komunikazioek eta ondasun eta zerbitzuen ekoizpenarekin lotutako jarduera ekonomiko berriak sartzek gizakien bizitzan eta ingurunean sorrarazi dituzten aldaketa batzuk aztertzea, ondasun eta zerbitzuetara iristeko diferentziek eragiten dituzten desberdintasunak gainditu beharra baloratuz.

5. Udalerriko, autonomia erkidegoetako, Espainiar Estatuko eta Europar Batasuneko gobernu organo eta eginkizun nagusiak ezagutzea, herritarrentzako zerbitzu publikoen kudeaketaren interesa eta parte-hartze demokratikoaren garrantzia baloratuz. Nafarroaren nortasunaren ezaugarriak, Foruaren jatorria eta berezitasunak eta Nafarroako gaur egungo erakundeak ezagutzea, daukaten balio historikoa ulertuz eta horiei irauaraztea baloratuz.

Egilea: Ion Linzoin Ramos

6. Eskala handiko plano eta mapak egin, interpretatu eta erabiltzea, zeinu konbentzionalak eta eskala grafikoa kontuan hartuta.

7. Espainiako gizarteak lehenagoko garai batzuetan –historiaurrean, klasikoan, erdi aroan, aurkikuntzen garaian, garapen industrialekoan eta XX. mendean– zituen ezaugarri nabarmen batzuk identifikatzea, eta gertaera garrantzizkoak denbora ildoan arabera kokatzea.

10. Arazo edo egoera zailtasun gabeei buruzko txosten bat aurkeztea paperean eta euskarri digitalean; horretarako iturri desberdinetako informazioa bildu beharko da (iturri zuzenak, liburuak, Internet), laneko plan bati segitu eta ondorioak adierazi. Nafarroako kultur eta arte ondarearen inguruko gaiei buruzko ikerketak egitea, eskolako liburutegiko materiala erabiliz.

11. Ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea esperientziak kontatzeko eta pentsamenduak azaltzeko gizarteko edo naturako egoeraren alderdi desberdinei buruz. Arloari dagozkion testuak irakurtzea.

Laburbiltzeko, aipatu berri dugun guztia taula batean erlazionatuta adieraziko dugu:

2.Taula. Curriculumeko helburu, ebaluazio eta eduki erlazioa, LH hiru zikloan geografia arloari lotuta daudenak

	HELBURUAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	EDUKIAK
Geografia arloari dagozkionak	1,2,5,6,7,10,11	1,2,4,6,10,11	1. multzoa. <i>Ingurunea eta ingurune hori zaintzea</i>
	1,2,5,6,9,10,11	2,4,5,6,10,11	4. multzoa. <i>Pertsonak, kulturak eta gizartearen antolaketa</i>
	1,2,5,6,9,10,11	2,6,7,10,11	5. multzoa. <i>Aldaketak denboran zehar</i>

Egilea: Ion Linzoain Ramos

	1,2,3,5,6,8,10,11	2,5,6,7,10,11	8. multzoa. <i>Nafarroako Foru Komunitatea</i>
--	-------------------	---------------	---

3.1. Materiala

Beraz, lehenago adierazi dugun bezala, ikastetxeei eskeintzen zaien maialeguko bi testu liburu aztertzea erabaki dugu. Bi argitaletxe ezberdinekoak dira, baina biak arlo berdina eta maila bera lantzen dute.

- Ikertutako liburuak:

-Inguruaren Ezaguera Lehen Hezkuntza 5, Nafarroako Foru Komunitatea (2002), Lagunartean SANTILLANA, MADRID

-Inguruaren Ezaguera Nafarroa, Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloa 5 (2002), Kolorezko xingola ANAYA, MADRID

Ikerketa honetan aztertu diren liburuak adierazi ondoren, aipatzekoa da bi liburuen barneko ikasgai guztietatik, bakarrik Geografiarekin erlazio dutenak ikertu ditugula. Osozara, liburu bakoitzetik bost gai izan dira, hurrengo taulan argertzen direnak hain zuen.

3.Taula. Liburuetako ikertutako ikasgaiak bi argitaletxeetan

ARGITALETXEA	ANAYA	SANTILLANA
IKASGAIK	8. Lur planetaren osasuna	8. paisaia naturalak. Nafarroako Erliebea
	9. Erliebea	9. Nafarroako ibaiak eta klima
	10. Klima eta Hidrografia	10. Nafarroako biztanleria
	11. Biztanleria	11. Lana eta jarduera

Egilea: Ion Linzoain Ramos

		ekonomikoak
	12. Jarduera Ekonomikoak	12. Nafarroako kultura eta gobernu

3.2. Metodologia

Honela, planteatuta ikerketa gauzatu ahal izateko, berau aurrera eramateko lan metodologia zehaztu beharra sortu zitzaigun. Horrela, testu liburuen azterketa gauzatzen duten aurrekarien zenbait urrats metodologikoez baliatu gara gure egiteko.

Onartu beharrean gaude, (López Atxurra y De La Caba Collado, 2001)ko ikerketaren metodologia oso erabilgarria suertatu zaigula gure lan metodologia eraikitzeko. Hau horrela delarik, gure metodologiaren azalpenari hasiera emango diogu.

Ikerketan jarraitu den prozedura bi motatakoa izan da: alde batetik, aztertutako ikasgai guztien inguruko azterketa zehatza gauzatu dugu. Horren bidez, bertan testu liburuek gaika biltzen dituzten eduki guztiak identifikatu eta bildu ditugu. Honi esker, eta prozesu inductibo bat jarraituz maila bereko analisi kategoriatzuk hortik eratortzeko.

Beraz, behin eduki esplizituak identifikatu eta bildu ditugularik, (Harmon,2000) jaunari esker, eduki hauek analizatzeko aukera izan dugu, berauek sailkatu eta ordenatzeko kategoriatzuk amankomun batzuk ezarriz. Honela, bost analisi kategoriatzuk bereizi egin ditugu: Eduki kontzeptual motak, Iturri Geografiko motak, Ariketa Sailkapena, Korrante Geografiko motak eta Geografi Ikuspegiak. Hurrengo taulan zehaztasun gehiagoz adierazten dira.

4. Taula. Ikerketaren Analisi kategoriak

Eduki Kontzeptualak	Iturri Geografikoak	Ariketa Sailkapena	Korrante Geografikoak	Ikuspegi Geografikoak
	Kartografikoak: Mapa, Planoak...	Ulermena egiaztatzeko ariketak	Ongizatea	Ortodoxoa
	Estatistikoak: Grafiko, taula estatistiko...	Arrazoitzeko ariketak	Kuantitatibo	
	Idatzikoak: Argazki, testu...	Ikasitakoa Aplikatzeko	Generoa	
	Beste motakoak...	Iritzia emateko	Humanista	Integratua
		Informazio berria lortzeko	Pertzepzioa	
		Ikasketa teknikak lantzeko	Politika	
		Edukiak berrikusteko	Erradikala	
		Ikasitakoa gogoratzeko	Soziala	
		Elkarlana sustatzeko	Aplikatua	
		Hizkuntza gaitasuna lantzeko		

Bestalde, esan beharra dago, metodologian erabili dugun bigarren metodologia mota (Johnsen, 1996) jaunaren edukien analisi espaziala izan da. Honi esker, analizatu nahi izan ditugun kategoria guztien inguruko orriz orriko ikerketa egitea ahalbidetu digu.

Honela, bigarren metodologia honi esker, edukien kuantifikazioa eta bilketa egin da, portzentaje zehatzak atera ahal izateko. Kuantifikazio hauek egin ahal izateko, taula bat erabili dugu, oinarritzko tresna bezala. Honako hau da:

Egilea: Ion Linzoain Ramos

5.Taula. Kuantifikazio taula

ARGITALETXEA		
IKASGAIA		
GAIA		
EDUKI KONTZEPTUALAK		
TRESNA GEOGRAFIKOAK	Kartografikoak	
	Estatistikoak	
	Idatzizkoak	
	Besteak	
ARIKETA SAILKAPENA	Ulermena egiaztatzeko	
	Arrazoitzeke	
	Ikasitakoa Aplikatzeko	
	Iritzi ariketak	
	Informazio berria lortzeko	
	Ikasketa teknikak lantzeko	
	Edukiak berrikusteko	
	Ikasitakoa gogoratzeko	
	Elkarlana sustatzeko	

Egilea: Ion Linzoain Ramos

	Hizkuntza gaitasuna lantzeko	
KORRONTE GEOGRAFIKOAK		
GEOGRAFIA IKUSMOLDEA	ORTODOXOA EDO INTEGRATUA	


3.3. Emaizen Analisia

Ikerketaren emaitzen analisi atalari hasiera emateko, adierazi nahi dugu, Ariketa sailkapen kategoriaren barnean, Ikasitakoa aplikatzeko ariketak bi argitaletxeetan analizatu ondoren, ondorio bezala iruditzen zaigula benetan ez dagoela geografia metodologiaren aplikapen praktikoa ; hau da, analisi geografikoa ahalbidetzen dituzten jarduerarik ez dagoela..

Horregatik, emaitza analisiaren atal honen azkeneko zatian, azterketa Geografikoaren aplikapena sustatzeko eta garatzeko bi jarduera (aplikapen praktikoa) proposatu nahi ditugu.

Honetaz gain, aipatzekoa da, ikerketaren emaitzak plazaratzeko modua grafiko zehatzen bidez egitea erabaki dugula, kuantifikaturiko informazioa modu bisual baten bidez hautemateko eta proportzioak argiago geratu daitezten.


Honela, adierazi nahi dugun lehenengo ikerketaren emaitza hauxe da; analizatutako testu liburu osoetatik, zenbat dago geografiari zuzenduta eta zenbat Natur Zientzia eta Historia arloei. Ikusi dezagun lehenik ANAYA eta SANTILLANA argitaletxeek bere liburuan geografiari eskeinitako orrialde kopurua.



5.Irudia.(ANAYA) konparaketa orrialde kopurua

Egilea: Ion Linzoain Ramos

KONPARAKETA GEOGRAFIARI EMANDAKO ORRIALDE KOPURUA TESTU LIBURUAN (SANTILLANA)



6.Irudia.(SANTILLANA) konparaketa orrialde kopurua

Argi ikusten denez, bi liburuetan Geografiari emandako garrantzia antzekoa da, baina oso bereizgarria da zenbat orrialde erabiltzen diren Geografia erakusteko: liburuen orrialde kopuru totalaren laurden bat bakarrik alegia. Beraz, argi ikusten da Natur Zientzia eta Historia arloei garrantzi handiago eskaintzen zaiela.

Orain, Grafikoen laguntzari esker, bi argitaletxeetako ikertutako ikasgai guztien emaitzak plazaratu egingo ditugu, hauen ostean emaitzen analisi orokor batekin bukatzeko.

Lehenik, (ANAYA) argitaletxearen emaitzak ikusiko ditugu eta ondoren (SANTILLANA).

Egilea: Ion Linzoain Ramos


ITURRI GEOGRAFIKOAK

8. Gaia LUR PLANETAREN OSASUNA (ANAYA)



7.Irudia. (ANAYA)

ARIKETA SAILKAPENA 8.Gaia LUR PLANETAREN OSASUNA (ANAYA)




8.Irudia. (ANAYA)

Geografia korrante Humanista eta Soziala

Egilea: Ion Linzoain Ramos


Joera geografikoen eraginaren analisisa Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria

ITURRI GEOGRAFIKOAK 9. Gaia ERLIEBEA (ANAYA)



9.Irudia. (ANAYA)

ARIKETA SAILKAPENA 9. Gaia ERLIEBEA (ANAYA)



10.Irudia. (ANAYA)


Geografia korrante Erregionala

Egilea: Ion Linzoin Ramos

Joera geografikoen eraginaren analisia Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria


ITURRI GEOGRAFIKOAK

10. Gaia KLIMA ETA HIDROGRAFIA (ANAYA)



11.Irudia. (ANAYA)

ARIKETA SAILKAPENA 10.Gaia KLIMA ETA HIDROGRAFIA (ANAYA)




12.Irudia. (ANAYA)


Geografia korrante erregionala eta kuantitatibista

Egilea: Ion Linzoain Ramos

Joera geografikoen eraginaren analisia Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria



13.Irudia. (ANAYA)




14.Irudia. (ANAYA)

Geografia korrante erregionala eta kuantitatibista

Egilea: Ion Linzoain Ramos


*Joera geografikoen eraginaren analisia Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria*

ITURRI GEOGRAFIKOAK 12. Gaia JARDUERA EKONOMIKOAK (ANAYA)



15.Irudia. (ANAYA)

ARIKETA SAILKAPENA 12.Gaia JARDUERA EKONOMIKOAK (ANAYA)



16.Irudia. (ANAYA)


Geografia korrante erregionala, kuantitatibo, sozial eta humanista

Egilea: Ion Linzoain Ramos

*Joera geografikoen eraginaren analisia Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria*


ITURRI GEOGRAFIKOAK

8. Gaia PAISAIA NATURALAK. NAFARROAKO ERLIEBEA (SANTILLANA)



17.Irudia. (SANTILLANA)

ARIKETA SAILKAPENA 8.Gaia PAISAIA NATURALAK. NAFARROAKO ERLIEBEA (SANTILLANA)



18.Irudia. (SANTILLANA)


Geografia korrante erregionala

Egilea: Ion Linzoin Ramos

*Joera geografikoen eraginaren analisisa Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria*


ITURRI GEOGRAFIKOAK

9. Gaia NAFARROAKO IBAIAK ETA KLIMA (SANTILLANA)



19.Irudia. (SANTILLANA)

ARIKETA SAILKAPENA 9.Gaia NAFARROAKO IBAIK ETA KLIMA (SANTILLANA)




20.Irudia. (SANTILLANA)

Geografia korrante erregionala eta kuantitatibista

Egilea: Ion Linzoain Ramos


*Joera geografikoen eraginaren analisia Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria*

ITURRI GEOGRAFIKOAK 10. Gaia NAFARROAKO BIZTANLERIA (SANTILLANA)



21.Irudia. (SANTILLANA)

ARIKETA SAILKAPENA 10.Gaia NAFARROAKO BIZTANLERIA (SANTILLANA)



22.Irudia. (SANTILLANA)

Geografia korrante erregionala eta kuantitatibista

Egilea: Ion Linzoain Ramos

*Joera geografikoen eraginaren analisisa Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria*


ITURRI GEOGRAFIKOAK

11. Gaia LANA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK (SANTILLANA)



23.Irudia. (SANTILLANA)

ARIKETA SAILKAPENA 11.Gaia LANA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK (SANTILLANA)



24.Irudia. (SANTILLANA)


Geografia korrante erregionala eta soziala

Egilea: Ion Linzoin Ramos

Joera geografikoen eraginaren analisisa Lehen Hezkuntzako geografiaren testu liburuetan
Análisis de las tendencias Geográficas en los libros de texto de Geografía de Educación Primaria

ITURRI GEOGRAFIKOAK

12. Gaia NAFARROAKO KULTURA ETA GOBERNUA (SANTILLANA)




25.Irudia. (SANTILLANA)

ARIKETA SAILKAPEN

A

12. Gaia NAFARROAKO KULTURA ETA...



26.Irudia. (SANTILLANA)

Geografia erregionala, humanista eta soziala

Egilea: Ion Linzoain Ramos

Emaitzen analisi atal hau amaitu baino lehen, Geografia Ikasgaien behaketa honen inguruko zenbait emaitza orokor plazaratu nahi ditugu, ikusitako grafikoak kontutan izan ditugarik.

Lehenik, aipatzekoa da, Geografia korrante guztien ginetik, egindako behaketa ikusten den bezala, geografia korrante Erregionalak duen garrantzia oso handia dela ikasgai gehienetan. Esan beharra dago, Erlieba eta Klimak lantzen diren ikasgaietan oinarri gisa batez ere geografia korrante hau erabiltzen dela. Esan beharra dago, nahiz eta aztertutako ikasgai gehienetan korrante erregionala bertako oinarria den, korrante kuantitatibistaren laguntzaz asko baliatzen dela ere, batez ere hidrografia, klimak eta biztanleria aztertzeko.

Bestalde, aipatzekoa da, Jarduera ekonomikoak, lana eta Nafarroako kultura lantzen diren ikasgaietan, korrante erregionalarekin bat, garrantzia duten beste korrante batzuk ere parte hartzen dutela, batez ere korrante sozial eta humanista. Adierazi beharra dago, bi korrante geografiko hauek parte hartzen duten ikasgaia guztietan, arazoitzeko, iritzia emateko eta aplikapena sustatzeko ariketa gehiago erabiltzen direla, ondorioz ariketa hauen portzentajeak sailkapenean modu esanguratsuan igoz.

Gainera, komenigarria da adieraztea, aztertutako bi argitaletxeen artean antzematen diren hainbat ezberdintasun nabarmen. Biak geografia korrante berdinetan oinarritzen badira ere, esan beharra dago, "Santillana" argitaletxeko materialean arazoimena, iritzia emateko eta baita ikasitakoa aplikatzeko ariketa gehiago daudela. Beraz, emaitzak analizatuz, esan genezake "Santillana" argitaletxeak, "Anaya" argitaletxeak baino Geografia integratuaren ikuspegia gehiago kontuan hartzen dituela.

Izan ere, azpimarratu beharra dago, bi argitaletxeetan ageri diren iturri geografikoak alderatuz, "Santillana liburuek" gehienbat iturri idatziak eta argazkiak erabiltzen dituzte bere ikasgaiak osatzeko. "Anaya liburuek" aldiz iturri kartografiko eta estatistiko gehiago erabiltzen dituztela, iturrien erabilera osatuago bat eginez.

Egilea: Ion Linzoain Ramos

Hala ere, esan beharra dago, kartografiaren garrantzia bi argitaletxeetan oso garrantzitsua dela eta berebiziko garrantzia duela ikasgai gehienetan.

Beste alde batetik ere, onartu beharrea gaude, iturri estatistikoek ere garrantzia badutela zenbait ikasgaietan (biztanleria, jarduera ekonomikoak...) eta gai hauetan bereziki, joera kuantitatibistaren eragina egiaztatu daitezke.

Lehen aipaturiko giza geografiari dagozkion liburuko gaietan, geografia kritiko eta geografia berriekin erlazionaturiko joerak ez dute agerpen nabarmenik eta oso gutxi islaturik daude.

Honela, hau guztia kontutan hartuta, orokorrean esan dezakegu, gure hasierako hipotesiak ez direla guztiz bete. Izan ere, hasieran, geografia joera berrien eragina baita geografia integratuaren eraginak testu liburuetan antzematea zen.

Beraz, gure ustez, ikusitako emaitzak direla eta, uste dugu eskolan aplikatzen den Geografia, gehienbat ortodoxo ikuspegitik landu egiten dela esango genuke. Izan ere, analisi geografikoaren aplikapen jarduera gutxi egiaztatzen ditugu bertako ariketetan; hau dela eta, analisi geografikoa aplikatzen ahalbidetu ditzaketen bi proposamen praktiko egitea erabaki dugu.

3.3.1. Aplikapen praktikoa

Lehenago adierazi dugun bezala, bi argitaletxeetan egindako ikerketa ostean, esan dezakegu gure ustez bertan planteatzen diren « ikasitakoa aplikatzeko ariketak » errealitatean ez datoz bat analisi geografikoarekin. baizik eta proposatzen diren ariketak, ulermena finkatzeko helburua dute gehienbat.

Lehenago Paisaia baten inguruko azterketa bat egitea eta bigarrena ikaslearen auzoko berdegunearen edo parkearen Espazio Geografikoa aztertzea.

Bi proposamen hauek, Lehen Hezkuntza bostgarren mailako ikasleentzat proposatzen dira, beraz gure proposamena hau da, irakasleak testu liburuekin batera, bi jarduera

Egilea: Ion Linzoain Ramos

